

Enpresei laguntzeko zerbitzua,


EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNA BULTZATZEKO

www.emakunde.euskadi.eus

Manuel Iradier, 36

01005 Vitoria-Gasteiz

945 016 700



EMAKUNDE

EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde Autonomiaduna

EUSKO JAURLARITZA



Organismo Autónomo

GOBIERNO VASCO

EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNA: NAHITAEZKOA, BERRIKUNTZARAKO ETA HAZKUNDE EKONOMIKORAKO

Enpresak funtsezko eragileak dira langileen artean berdintasuna lortzeko baldintzak sustatzeko eta enpresen egunerokoan berdintasuna eragozten duten oztopoak kentzeko. Kudeaketan berdintasuna sartzea osagai garrantzitsua da berrikuntzarako; izan ere, honako guzti hau ahalbidetzen du:

- Antolakundeko prozesu guztiak, zerbitzuak eta produktuak beste ikuspuntu batetik berrikustea.
- Beste balio batzuk hartzea eta antolakundeko pertsona guztien potentziala kontuan hartzea.
- Justizia soziala handitzea eta eredu berdinzaleagoak ahalbidetzea.

Hain zuzen ere, emakumeen eta gizonen berdintasun-maila handiena duten herrialdeek dute garapen ekonomiko handiena.

ZERTAN DATZA EMAKUNDEK ENPRESEI EMATEN DIEN LAGUNTZA?

01 INFORMAZIOA ETA AHOHKULARITZA

Emakundek informazioa eta aholkularitza ematen die entitateei: azterlanak, prestakun-

tza-saioak, gidaliburuak eta beste tresna metodologiko batzuk egiten ditu, webgunean eskuragarri daudenak, antolakundeen berdintasun-neurriak diseinatzen laguntzeko.


02 LAGUNTZA EKONOMIKOA, DIRU-LAGUNTZEN BITARTEZ

Enpresetan berdintasun-planak abiarazteko laguntzak emateko deialdi bat egiten du urtero Emakundek, enpresek aholkularitza-enpresa bat kontratu dezaten, diagnostikoak eta emakumeen eta gizonen berdintasunerako planak egiteko. EAEko enpresa edo entitate pribatuek eskatu ditzakete baldintza hauekin:

- **Administrazio Publikoek partaidetzarik edo kontrolik handiena ez izatea.**
- **Aholkularitza-enpresa homologatu baten laguntza tekniko kontratatzea.**
- **Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako lankidetzaren erakundearen aitortpena lortzeko konpromisoa hartzea.**

03 BERDINTASUNAREN ALDEKO KONPROMISOAREN ZIURTAGIRIA: NOLA IZAN LANKIDETZA-ERAKUNDE

emakumeen eta gizonen
berdintasunerako
lankidetzaren erakundea



entidad colaboradora
para la igualdad de
mujeres y hombres

Emakundek urtero banatzen du “Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lan-kidetza Erakundea” aitortpena berdintasunaren aldeko jarduerak egiten dituzten entitateen artean. Betekizunak:

- EAEn jardun behar dute.
- Entitatearen zuzendaritza eta kudeaketa administratiboa EAEn gauzatu behar dute.
- Diagnostiko bat eta jarduera-plan bat egin behar dute eta langile guztiei jakinarazi.
- Neurri espezifikoak ezarri behar dituzte sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko.

Aitortpena lortzeko deialdia urte osoan dago zabalik.

04 ENPRESEI LAGUNTZA TEKNIKOA EMATEKO AHOLKULARITZA-ENPRESEN HOMOLOGAZIOA

Emakundek aholkularitza-enpresak homologatzen ditu, enpresei eta entitateei laguntza teknikoak eman diezaieten emakumeen eta gizonen berdintasunaren inguruan. Betekizunak:

- Izen sozial bakoitzaren kasuan, EAEn lantoki bat izan behar dute, gutxienez.
- Aholkularitza-zerbitzua eman behar diete beste enpresa edo entitate pribatu batzuei.
- Unibertitate edo administrazio publiko

batek egiaztatutako berdintasun-agente bat izan behar dute, kontratu finko batekin.

- Berdintasunerako Lankidetza Erakundearen aitortpena izan behar dute.
- Proiektu bat aurkeztu behar dute, zer laguntza eta aholkularitza emango duten azaltzeko.

Homologazioa lortzeko deialdia urte osoan dago zabalik.

05 BERDINTASUNAREN ALDEKO KONPROMISOA DUTEN ENPRESEN SAREAN PARTE HARTZEA

Berdintasunaren aldeko konpromisoa duten enpresen sareak sortzea bultzatzen eta laguntzen du Emakundek. Berdintasunerako lankidetza erakundeen BAI SAREA eta enpresa publikoen sarea gune aproposak dira partekatzeko, eztabaidatzeko, prestakuntza jasotzeko eta sarean dauden enpresetan berdintasunaren eragina zabaltzeko.

